

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN
BILERAREN AKTA
(01.03.11)**

LEHENDAKARIORDEA
INGURUMEN ZINEGOTZIA
KELTSE EIGUREN andrea

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jauna

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA andrea

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jauna (Ingurune)

BERTARATU DIRA:
PATXI DIAZ jauna (Ingurumen eta Ibilbide Ekologikoetan izen handiko pertsona).
CARLOS ARANA jauna (Fegevol).
TXEMA GOROSTIAGA jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona eta EHuko irakaslea).
PEDRO BARRENETXEA jauna (Eskolako Agenda 21 eta Aixerrota Institutuko irakaslea).
D. DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkartek).
SANTI BARRADO Jauna (Bizkel).
PEDRO ORTUETA Jauna (Ekologistak martxan)
VALEN GOMEZ ANDREA (Eskuz-esku)
AMELIA ZORRILLA Andrea (Basozaleak)
XABIER BUENETXEA Jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona).

TOMI ETXEANDIA JAUNAK (21 Eskola Agenda eta Ikastolako irakaslea) ezin izan du etorri.

Getxon, 2011ko martxoaren 3an. Egun horretako arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Toki Foroa bildu zen, aurretik aipatutako kapitularrak bilduz.

GAI-ZERRENDA

1.- 2010eko azaroaren 2 eta 30ean, eta abenduaren 22an antolatutako Foroan aktak onestea.

Ez da horri buruzko ezer aipatu, beraz, hiru aktak ontzat eman dira.

2.- 21 Tokiko Agendaren Jarduera Plana Errebisatzea, 2010eko jardueri dagokienez.

Julen Rekondo Laguntzaile Teknikoak eta Josu Ateka Ingurumen Teknikariak Jarduera Planaren errebisioa azaldu dute. Hura aurretik Foroaren kideei banatu zaie. Azalpenak ematen dituzten heinean, bildutakoek zenbait

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE
MEDIO AMBIENTE
(01.03.11)**

VICEPRESIDENTA
CONCEJALA DE MEDIO AMBIENTE
Dña. KELTSE EIGUREN

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA:
Dª. ARANTZA CABEZA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:
D. PATXI DIAZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios Ecológicos).
D. CARLOS ARANA (Fegevol).
D. TXEMA GOROSTIAGA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente y profesor de la UPV)
D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).
D. SANTI BARRADO (Asociación Bizkel).
D. PEDRO ORTUETA (Ekologistak martxan).
Dª VALEN GÓMEZ (Eskuz-esku).
Dª AMELIA ZORRILLA (Asociación Basozaleak).
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola) excusa su no asistencia.

En Getxo, a 3 de marzo de 2011. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

ORDEN DEL DÍA

1.- Aprobación de las actas de los Foros celebrados el 2 y el 30 de noviembre, y el 22 de diciembre de 2010.

No hay ningún comentario al respecto, por lo que quedan aprobadas las tres actas.

2.- Revisión del Plan de Acción de la Agenda Local 21 en lo concerniente a las acciones de 2010.

La Asistencia Técnica por medio de D. Julen Rekondo y el técnico de Medio Ambiente D. Josu Ateka van exponiendo la revisión del Plan de Acción, que previamente se ha enviado a los miembros del Foro.

iruzkin egin dute.

Conforme se va exponiendo se van haciendo comentarios.

2.2.1. Urari azterketak egitearen jarduerari dagokionez, zer aztertzen den galdetu da. Josu Ateka jaunak erantzun du bainu ureei dagokienez, aztertzen dela Bandera Urdina irabazi ahal izateko eskatzen dutena eta Arrigunaga eta Ereaga hondartzek duten ISO 14011 ziurtagiriak exijitzen duena. Ibaiei dagokienez, Ingurumen Saileko teknikariak DQO, disolbatutako oxigenoa, etab. aztertzen direla esan du. Ibaietako egungo egoerari buruz galdetu dute ere, uretako kalitateari dagokionez. Josu Ateka jaunak dio oro har hobera egin dutela, batez ere, saneamenduaren eraginez.

En lo que respecta a la acción **2.2.1 Realización de analíticas de agua**, se pregunta qué es lo que se analiza. D. Josu Ateka responde que en lo que respecta a las aguas de baño se analiza lo que se pide para poder aspirar a la Bandera Azul y lo que exige la certificación ISO 14011 que tienen las playas de Arrigunaga y Ereaga. En cuanto a los ríos, el técnico de Medio Ambiente señala la DQO, el oxígeno disuelto, etc. Se pregunta también por el estado actual de los ríos en cuanto a calidad de sus aguas. D. Josu Ateka señala que ha habido una mejora en general, sobre todo debido al saneamiento.

3.1.1. Gune publikoari lehenasuna eman hiri garapenak antolatzeko elementu gisako jarduerari dagokionez, Dimas Ramos jaunak San Juan Bautista Zabalan egiten ari diren obrei buruz galdetu du. Bertan, alde batetik 25 platanondo inguru moztu ziren, eta ez dira zuhaitzak berriz landatu, esan zuten bezala, eta bestalde, obrek denbora luzez iraun dutela. Josu Ateka jaunak erantzun du ez zirela hainbeste zuhaitz moztu, baina laster zuhaitzak landatzea aurreikusi dutela, baina jardineretan. Obrek iraundako denbora luzeari dagokionez, esan du, metroko plazan, egun hauetan ipintzen ari diren egitura iristearen zain egon direla, jolas-gunea estaltzeko, horregatik lanak geldituta izan dira; lurra zolatzea alferrikakoa zen, makina astunak bertan sartu behar zirelako eta lurra hondatzeko arriskua zegoelako.

En relación con la acción **3.1.1. Priorizar el espacio público como elemento ordenador de los desarrollos urbanos**, D. Dimas Ramos pregunta sobre las obras en San Juan Bautista Zabala, que por una parte se talaron unos 25 plátanos, y no se han vuelto a plantar árboles, como se había anunciado, y también que las obras han durado una eternidad. D. Josu Ateka responde que no se talaron tantos árboles, que se tiene previsto próximamente plantar árboles, pero en jardineras. En cuanto a la larga duración de las obras, se viene a decir que, en la plaza del metro, se ha estado esperando a que llegara la estructura que se está colocando estos días, para cubrir la zona de juegos y por ello han estado paralizadas las obras; no tenía sentido pavimentar el suelo, antes de que se instalara la estructura, dado que tenía que entrar maquinaria pesada y se corría el riesgo de que pudiera deteriorarse.

Bestalde, Pedro Ortueta jaunak, **3.2.2. Hutsik dauden etxebizitzak merkatuan alokagai jartzeko bidea errazten jarraitzearen** jarduerari dagokionez, aipatu du planaren errebisioak zera diola "**adjudikazio fasean dago, gutxienez alokairuko 141 etxebizitza eraikitzeo**", **nahiz eta gai horrek aipatutako jarduerarekin bat ez egin**. Arrazoia duela erantzun dio. Kontua da hutsik dauden etxebizitzekin ez dela ezer egin, udal tasak izoztu direlako, beraz, ez zaie horien jabeei zigorra jarri eta alokairuko 141 etxebizitzak eraiki, eraikiko dira. Hura jarduera gisa agertu ez arren, gutxienez horren aipua egitea beharrezkotzat jo dute.

Por su parte, D. Pedro Ortueta en relación con la acción **3.2.2. Continuar facilitando la puesta en el mercado de alquiler de las viviendas vacías**, viene a señalar que en la revisión del plan se pone que "está en fase de adjudicación para construir un mínimo de 141 viviendas en alquiler", cuando tal cuestión no se corresponde con la acción mencionada. Se le responde que tiene razón, lo que pasa, es que con las viviendas vacías no se ha hecho nada, dado que se han congelado las tasas municipales, con lo cual no se ha penalizado a los dueños de ellas y sí se va a realizar la construcción de un mínimo de 141 viviendas en alquiler, que no aparece como tal acción, pero se ha visto la necesidad al menos de citarla.

6.2.5. Hondakin toxikoak, etxeko hondakinak eta bestelakoak biltzen diren udal birziklatze zentro bat sortzea, Diputazioko Garbigunearen eskaintza zabaltzeko jarduerari heltzerakoan, Txema Gorostiaga jaunak gune mugikorretan etxeko hondakin toxikoekin egiten duten bilketari buruz galdetu du. Ingurumen Saileko zinegotziak erantzun dio nahiko ondo doala, eta udal garbigunera joateko astirik ez duten, edo erosotasuna dela eta, hondakin horiek etxetik gertu uztea nahiago duten herritarren artean harrera ona izaten ari den esperientzia aitzindaria dela. Ingurumen Saileko zinegotziak dio aste honetan bertan prentsaurreko bat emango dutela kanpaina baten berri emateko. Bertan, liburuxka bat sartuko da postontzietan, garbigune

Al llegar a la acción **6.2.5. Creación de un centro de reciclaje municipal donde se recojan residuos tóxicos, domésticos y otros tipos de residuos, ampliando la oferta del Garbigune de la Diputación**, D. Txema Gorostiaga pregunta por la recogida en los puntos móviles de residuos tóxicos domésticos. La concejala de Medio Ambiente responde que va bastante bien, y que se trata de una experiencia pionera que está calando entre la población que no dispone de tiempo para acudir al garbigune municipal, o que por comodidad, prefiere dejar estos residuos cerca de su casa. La concejala de Medio Ambiente dice que esta misma semana van a dar una rueda de prensa, anunciando una campaña en la que se buzonea un folleto informando sobre el punto limpio

mugikorrari, bildutako hondakin kopuruaren inguruko datuei eta ekimen honen onurei buruzko informazioa emateko; horrekin batera iman bat banatuko da garbigune mugikor honen egunak eta ordutegiak eskura eduki ahal izateko. Horrez gain, aipatu du ere aztertzen ari direla ea asteburuetan egiten ari den bilketari gune bat gehiago erantsi dakioken ala ez. Hura Gernika parke inguruan kokatu litzateke. Gaur egun, hauek dira bilketa guneak: Areetako eta Algortako Metro geltokiaren plazak, Bidezabal anbulatorioaren ondoan eta Iturigitxi parkea.

7.2.1. Kontsumo handiko eta eraginkortasun gutxiko luminariak pixkanaka ordezkatzeari jarraitzearen..., jarduerari dagokionez, Patxi Diaz jaunak planteatu du ea hainbeste argi beharrezkoa den eta Arrigunagako kasua azaldu du, ez baitu inoiz ulertu. Julen Rekondo jaunak esan du berarekin gai honi buruz hitz egin duten udal teknikariek uste dutela, kontsumo gutxiko eta ahalik eta eragin handieneko luminarien ikuspuntuaren arabera, konponbide egokiena LED lanparak direla, eta ipintzen ari direnak ezaugarri horietakoak direla; Arrigunagako kasuari buruz, zenbat buru, hainbat aburu.

12.1.1. Ingurumeneko Toki Foroaren funtzionamendua sustatzea eta dinamizatzea, egun bertan parte hartzen ez duten kolektiboek hedatzea planteatuz jarduerari dagokionez, Patxi Diaz jaunak esan du, dagoeneko aurrekoetan aipatu duen arren, beste lagunek foroan parte hartzea beharrezkoa dela, beti berdinak biltzen garelako. Keltse Eiguren andreak esan du, Araudiaren arabera, araututako Foro bat dela, udalerriko ekonomia, gizarte, kirol... egitura anitza ordezkatzeko duten pertsonen osatuta, baina legealdi hau amaitzeaz gaudenez, zain egongo gara eta udalbatza berria osatu ondoren, gaiari berriz helduko zaio.

Azkenik, Josu Ateka Ingurumen Saileko teknikari jaunak eta laguntzaile teknikoek aipatu dute 2008-2011 denboraldiko 21 Tokiko Agendaren Planaren ia jarduera guztiak exekutatu direla eta plan berri bat osatu beharko dela.

3.- Galde-eskaerak.

11.02.8an Getxoko gune naturalak sustatzeko eta/edo babesteko antolatutako bilerari buruzko informazioa

Julen Rekondo jaunak otsailaren 8an antolatutako bileraren berri eman du. Bertaratutako lagunen kopurua oso alderdi positibotzat jo du -Foroaren 7 kide eta EHUko 6 irakasle bildu ziren,- eta 3 lagun bakarrik falta izan ziren. Azken horiek, hasiera batean bileran parte hartuko zutela baieztatu arren, azkenean ezin izan zuten joan, ordu berean beste bilerak zituztelako.

Uribe Kostako hainbat kolektibok egin duen babestutako biotopo aitortpenaren ekimenari dagokionez, (Batzar Nagusiek aho betez haren alde egin zuten), Eusko

móvil, datos de la cantidad de residuos recogidos y beneficios de esta iniciativa; se acompaña un imán para que podamos tener a mano los días y horarios de este punto limpio móvil. También señala que se está estudiando si se puede añadir un punto más a la recogida que se está haciendo los fines de semana, podría ser en las cercanías del parque Gernika; actualmente, los puntos de recogida son: las plazas de la estación del Metro de Las Arenas y Algorta, junto al ambulatorio de Bidezabal y el parque de Iturigitxi.

En lo que respecta a la **acción 7.2.1. Continuar con la sustitución progresiva de luminarias de alto consumo y escasa eficacia...**, D. Patxi Diaz se plantea si es necesaria tanta iluminación y comenta el caso de Arrigunaga, que nunca lo ha entendido. D. Julen Rekondo comenta que los técnicos municipales con los que ha hablado sobre este tema consideran que la solución desde el punto de vista de luminarias de bajo consumo y máxima eficiencia son las lámparas LED, y las que se están colocando son de estas características; sobre Arrigunaga hay opiniones entre la ciudadanía, para todos los gustos.

En relación con la **acción 12.1.1. Impulsar y dinamizar el funcionamiento del Foro Local de Medio Ambiente, planteándose su posible ampliación a otros colectivos que actualmente no forman parte de él**, D. Patxi Diaz comenta, aunque ya lo ha señalado en otras ocasiones, que es necesario que acudan al foro otras personas, ya que siempre "estamos las mismas caras". Dña. Keltse Eiguren comenta que, conforme al Reglamento, se trata de un Foro reglado, compuesto por personas que representan el diverso entramado económico, social, deportivo... del municipio, pero dado que estamos a punto de finalizar la presente legislatura esperamos y una vez se forme la nueva corporación, se retomará el tema.

Finalmente, el técnico de Medio Ambiente, D. Josu Ateka y la asistencia técnica señalan que prácticamente la mayor parte de las acciones del Plan de Agenda Local 21 2008-2011 están ejecutadas y lo que habrá que elaborar es un nuevo plan.

3.- Ruegos y preguntas.

Información sobre la reunión celebrada el 8.02.11 de cara a promover y/o proteger los enclaves naturales de Getxo

D. Julen Rekondo informa de la reunión celebrada el pasado 8 de febrero. Señala como aspecto muy positivo la asistencia -asistieron 7 miembros del Foro y 6 profesores de la UPV-, y sólo faltaron 3 personas de las que inicialmente confirmaron que iban a acudir, pero que finalmente no pudieron, por tener otras reuniones a la misma hora.

En lo que respecta a la iniciativa de declaración de biotopo protegido que varios colectivos de Uribe Kosta han hecho, y que las Juntas Generales apoyaron por unanimidad,

Jaurlaritzak Baliabide Naturalen Antolamendu Plana (BNAP) osatzeko lana enkargatzearen zain daude. Aipatutako plana nahita nahiez egin behar da, eta bertan ez zen barne hartzen, edo hobeto esanda; Getxo aitortu beharreko Uribe Kosta-Butroi zonaldeen barruan sartzearen aurka zeuden, prozesua nabarmen luzatuko zelako. Ondoren, geoparkeen berri eman zen: nazioarteko figura bat dira. Horiek, babestutako biotopoa ez bezala, EAKO Natura Kontserbatzeari buruzko Legean agertzen den babes figura bat dena, izakiak bizi izan diren lurralde bat da, ondare geologiko garrantzitsuaz eta bestelako ondare elementuez hornituta. Horietan guztietan, geokontserbazioan eta erkidegoan finkatutako garapen iraukorrean oinarritutako kudeaketa estrategia bat aplikatzen da. Estibaliz Apellaniz eta Aitor Payros UPV-EHUko irakasleek, bileran, Gipuzkoako Zumaia, Deba eta Mutriku udalerrietan burututako prozesuaren berri eman zuten. Bertan, hasiera batean, hiru udalerrien arteko kostaldeko gunearen babestutako biotopoen aitortpena lortu zuten, eta ondoren, 2010eko irailean Europako Geoparkeen Sarean sartzen lortu zuten.

Marta Mendía EHUKo irakasleak, halaber, jakinarazi du ere Geodibertsitateari dagokionez, gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Unibertsitatearen artean hainbat bilera antolatzen ari dela, eta laster, Unibertsitateak interes geologikoko guneei buruzko inbentario bat burutuko duela, gero GIS sistema batera eramateko.

Informazio horren ondoren, Getxon zer egin galderari heldu diote erabat. Bertaratutako guztiak bat datoz Getxoko labarrek balio zoragarriak dituztela aitortzean, baita Euskal kostaldeko beste labarrek baino zoragarriagoak ere. Izan ere, nazioarteko zientifikoek Gorrondatxe hondartzaren (Azkorri izenarekin ezaguna) harkaitzak estratotipotzat izendatu zituzten. Hau da, mundu mailako erreferentea da, Eozenoak barne hartutako bi pisu geologikoak aztertzeko: Ypresiara eta Lutetiarra, 2009. urtean, hau da, Zumaia flysh-arekin egin eta bi urte ondoren.

Bestalde, eta oro har, ez da beharrezkotzat jo babes bereziko figura hartzea, aplikatu daitezkeen araudi eta lege nahikoak baitaude, esaterako: Kostaldeko Legea, Kostaldeko PT eta udal plangintza.

Zonalde baten babesak eragin ditzakeen arazoei eta bertan sortu daitezkeen masifikazioaren ondorioei dagokionez, esan dute hura nola garatzen den araberakoa dela. Era horretan, Xabier Murelaga jaunak, adibidez, Nafarroako Errege Bardean burutzen ari den proiektu baten berri eman du. Bertan, diziplina anitzeko talde baten bidez, publikoarentzako zonaldeak mugatzen ari dira eta beste zonaldeak, berriz, itxita daude eta ezin da horietara sartu; Getxoko eta La Galea labarrei dagokionez, bezainbeste egin daiteke.

Horri dagokionez, Zumaia-Mutriku-Deban abian jarri diren ekimen interesgarriak aipatu dira, esate baterako: Algorriko Interpretazio Zentroa, Zumaian (2005), bertako ondare geologikoari eta naturalari buruzkoa. Bertan

están a la espera de que el Gobierno Vasco encargue la elaboración del Plan de Ordenación de Recursos Naturales (PORN), que es preceptivo hacerlo para su declaración, y no se veía o más bien estaban en contra de la posible inclusión de Getxo en la zona de Uribe Kosta-Butroi a declarar, ya que se alargaría enormemente el proceso. Posteriormente se informó de los geoparques, que se trata de una figura internacional, que a diferencia del biotopo protegido que es una figura de protección que aparece en la Ley de Conservación de la Naturaleza de la CAPV, es un territorio habitado, dotados de un importante patrimonio geológico y de otros elementos patrimoniales, en los que se aplica una estrategia de gestión basada en la geoconservación y el desarrollo sostenible asentada en su comunidad. Los profesores de la UPV-EHU, Estibaliz Apellaniz y Aitor Payros, informaron en la reunión del proceso que se ha llevado en los municipios guipuzcoanos de Zumaia, Deba y Mutriku, que inicialmente han conseguido la declaración de biotopo protegido del espacio litoral comprendido entre los tres municipios, y posteriormente, en septiembre de 2010, han conseguido entrar en la Red de Geoparques Europea.

También la profesora de la UPV, Marta Mendía, informa que en relación con la Geodiversidad se están celebrando en la actualidad unas reuniones entre la Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco y Universidad, y que se va a realizar próximamente por parte de la Universidad un inventario sobre los puntos de interés geológico para trasladarlo luego a un sistema GIS.

Después de esta información, se entra de lleno en qué hacer en Getxo. Todos los asistentes coinciden en los excepcionales valores que encierran los acantilados de Getxo, incluso superiores a los acantilados de otras zonas de la costa vasca. De hecho, científicos internacionales nombraron a las rocas de la playa de Gorrondatxe, conocida como Azkorri, estratotipo. Es decir, referente mundial para el estudio de dos pisos geológicos incluidos en el Eoceno: el Ypresiense y el Luteciense, en 2009, es decir, dos años después de hacerlo con el flysh de Zumaia.

Por otra parte, y en general, no se ve muy necesario adoptar una figura de protección especial, ya que existe normativa y legislación suficiente que se puede aplicar, como la Ley de Costas, el PT del Litoral y el planeamiento municipal.

En relación a los problemas que puede ocasionar la protección de una zona y las consecuencias de su posible masificación, se comenta que depende de cómo se haga. Así, por ejemplo, Xabier Murelaga informa de un proyecto que se está haciendo en Las Bardenas Reales de Navarra, a través de un equipo multidisciplinar, en el que se han acotado zonas para el público y otras zonas están cerradas a su acceso, en donde no se puede entrar; en el caso de los acantilados de Getxo y La Galea se puede hacer otro tanto.

A este respecto, se citan iniciativas de interés que se han puesto en marcha en Zumaia-Mutriku-Deba, como el Centro de Interpretación de Algorri en Zumaia (2005), dedicado al patrimonio geológico y natural de la zona, que

existitzen den errealitate geologikoa sakon ezagutzen duen geologo bat zentro hori zuzentzeaz arduratzen da, eta hortik abiatuta eskaintza geoturistikoak antolatzen dituzte; hainbat panel ipini da, bestelako informazio eta hedapen baliabideak erabiltzeaz gain; horietako ekimen batzuk Getxoko kasurako baliozkoak izan litzateke.

Bertaratutako batek honako auzia planteatu du: bera ez da ezer informatzearen eta hedatzearen aldekoa, kontserbazioaren erabat aurkakoa dela diolako. Beste batzuk ez daude horrekin ados. Euren ustez, informatzea beharrezkoa da, hiritarrek zer duten jakin ahal izateko, ezagutzen dena baloratzen baita. Hala ere, zenbait gune, haren kontserbazioaren alde egiteko, itxi behar da eta publikoari bertan sartzea debekatu behar zaio.

Xabi Buenetxea kudeaketa plan on bat osatzearen alde dago; bere ustez, naturaren balioak ezagutzera eman behar dira, baina ez turismo masibo baten bidez, "mugatuaren" bidez baizik.

Bestalde, Patxi Díaz esan du Getxotik Armintzaraino babestu behar ditugun balio naturalak daudela eta penagarria dela biztanleek horien berri ez izatea, baina modu arautuan egin behar dela; turismoa bai, baina kontrolatuta. Babesteko eta sustatzeko balioak daude eta Getxok kezka horietan parte hartu eta horien berri eman behar du, bai beste udalerriei eta bai beste erakundeiei, besteak beste: Eusko Jaurlaritza, Diputazioa...

Bileraren bestelako kideek euren oharrak eman ondoren, ondorioztatu da, Getxo mailan, beste bilera baterako deialdia egitea geure artean eta garatu nahi dugun ideien zirriborroa behin edukita, guztiokin berriz biltzea.

Keltse Eiguren Ingurumen Saileko zinegotzi andrearen azalpena, 11.02.15eko DEIA egunkarian argitaratutako informazioari dagokionez

DEIA egunkarian otsailaren 15ean argitaratutako berriari dagokionez, aurretik aipatutako bilera eta zenbait egun ondoren, (bertan Kresalia aipatutako proiektuari erreferentzia egiten zaio, eta bertako titularretako batean esaten da "Sopela, Barrika, Getxo, Plentzia eta Gorlizeko foru eta udal ordezkariak euren baliabide naturalak turismo mailan sustatu nahi dituztela", azaldu du Sopela eta Barrikako udalek sustatutako ekimen bat dela, euren ingurumena nabarmentzeko; bi udalerririk horien proiektua aurreratuagoa dago eta bilera horretan beste udalerriekin konpartitu nahi izan dute, baina ideia bakoitzak bere erritmora egitea da. Proiektuaren orientazioa turismoaren esparruan da, natura izaerakoa, udalerririk bakoitzak egoki deritzon baliabideak nabarmentzeko. Bilera horretan akordio batera iritsi nahi zen, seinaleak batzeari zegokienez.

Lan-mahaiek bilerekin hasiera emango diete, irailean inguru. Ingurumen Saileko zinegotziak dio, Getxoko Udalak kontuan hartuko duela Foroak horri buruz pentsatzen duena.

precisamente lo dirige un geólogo que conoce muy estrechamente la realidad geológica existente en el lugar, a partir del cual se organizan ofertas geoturísticas; se han colocado diversos paneles, además de utilizar otros medios de información y difusión; algunas de estas iniciativas podrían ser válidas para el caso de Getxo.

Hay un aspecto que plantea uno de los asistentes en la que dice que él no es partidario de informar y difundir nada, que es absolutamente contraproducente, y contrario a la conservación. Hay otras personas que no están de acuerdo con ello, ya que consideran que es necesario informar, para que la ciudadanía conozca lo que tienen, que se valore lo que se conoce; aunque también es necesario que en determinadas zonas, en aras a su conservación, haya que cerrarlas y no permitir el acceso.

Xabi Buenetxea está a favor de hacer un buen plan de gestión; es de la opinión de que los valores naturalísticos hay que darlos a conocer, pero no a través de un turismo masivo sino "limitado"

Por su parte Patxi Díaz comenta que desde Getxo a Armintza hay valores naturales que tenemos que salvaguardar y es una pena que no trasciendan a la población, pero hay que hacerlo de una forma regulada; turismo sí, pero controlado. Hay valores que preservar e impulsar y Getxo tiene que participar y trasladar todas estas inquietudes, tanto a otros municipios como a otras instituciones, Gobierno Vasco, Diputación...

Después de algunos comentarios de otros asistentes a la reunión, se concluye, volver a convocar a nivel de Getxo otra reunión entre nosotros y una vez tengamos esbozada la idea de lo que queremos, volver a reunirnos todos.

Aclaración por parte de la concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren, la información publicada en el Diario DEIA el 15.02.11

En relación con la noticia publicada en el diario DEIA el pasado 15 de febrero, unos días después de la reunión anteriormente mencionada, en la que se hace referencia al proyecto denominado Kresalia, y en el que en uno de sus titulares se recoge que "Representantes forales y municipales de Sopelana, Barrika, Getxo, Plentzia y Gorliz quieren promocionar sus recursos naturales a nivel turístico", explica que se trata de una iniciativa impulsada por los ayuntamientos de Sopelana y Barrika, con el objetivo de poner en valor su medio natural; estos dos municipios tienen más avanzado el proyecto y en esta reunión lo que han querido ha sido compartirlo con otros municipios, pero la idea es que cada uno vaya a su ritmo. La orientación del proyecto es en el ámbito turístico, de carácter naturalístico, para que cada municipio, ponga en valor, los recursos que considere; en esta reunión también se quería llegar a un acuerdo, a la hora de unificar la señalética.

Las mesas de trabajo iniciarán las reuniones, hacia el mes de septiembre, aproximadamente. La concejala de Medio Ambiente afirma que lógicamente, el Ayuntamiento de Getxo tendrá en cuenta lo que se piensa al respecto, por

parte del Foro.

Hurrengo bilerak eta aztertu beharreko gaiak

Ingurumen Sailak adierazi du, Foroan planteatutako gaietako bat Gobela ibaiaren Proiektua zenez, martxoaren 29an antolatu beharreko hurrengo foroarako, URAko ordezkari bat etortzea aurreikusi zen, Getxon, Gobela ibaiaren Egokitzapen Hidrauliko eta Ingurumen Berreskuratzearen Proiektuan burutuko diren landareak berriz landatzeko lanei buruzko informazioa eskaintzeko. Horri dagokionez, Xabier Buenetxea jaunak planteatu du oraindik korridore ekologiko bat sortzeko aukera aztertu eta ebatzi gabe dagoela eta galdetu du ea foroak horrekiko jarrera adierazi nahi duen, hau da, horrekin ados dagoen ala ez. Pedro Ortueta, Patxi Díaz eta Xabier Buenetxea Jon Gallastegi gonbidatzearen aldekoak dira, gai hau Foroan aztertzen denean. Azken hura hurrengo foroan aztertu daiteke, Gobela ibaiaren landareak berriz landatzeko lanei buruz hitz egiten denean, korridore berdearen ideia proposatu zuten pertsonetako bat izan baitzen. Hainbat oharpen egin da; batzuk bat datoz martxoaren 29an antolatzen den hurrengo bilera etortzen den URAko ordezkariari foroaren hainbat kideen artean sortutako kezka berri ematearekin, korridore ekologiko bat egiteari edo ez egiteari buruzkoa. Horrez gain, planteatu da ere, martxoaren 29ko Foroan ezin badela gai horri heldu, ondoren antolatzen den beste batean heldu dakiokela. Horri dagokionez, Pedro Learreta jaunak proposatu du horri buruzko proposamena osatzeko bilera bat egitea, agian maiatzaren 13an.

Keltse Eiguren zinegotzi andreak Azaldu du URAk jardun duten eta obrak garatu dituzten zonaldeko ingurumena bakarrik lehenera ekarriko duela; hortxe bakarrik landatuko dituzte landareak berriz.

Bere ustez egokia da geure proposamenak eta ideiak entzutea, baina bere jarduera bakarrik burutu dituzten aurreko obretan murgilduko da, proiektu orokorraren barruan eta euren jarduera zonalde horretan bertan garatu dute, landareak berriz landatuko eta haren ingurumena lehenera ekarriko duten zonaldea.

Patxi Díaz jaunak errepikatu du Jon Gallastegi etortzea interesgarria izango litzatekeela, bere proposamenak planteatzeko eta, Fadurako Eskola 21 Agendaren koordinatzaile gisa entzun ahal izateko.

Getxon, 21:15ean, bilera amaitutzat eman da.

Próximas reuniones y temas a tratar

Se informa por parte del Area de Medio Ambiente, que como uno de los temas que se habían planteado en el Foro, era el del Proyecto del río Gobela, se había previsto que para el próximo foro a celebrar el 29 de marzo, viniera un representante de URA e informara sobre los trabajos de revegetación que se van a realizar, en el Proyecto de Acondicionamiento Hidráulico y Recuperación Ambiental del río Gobela en Getxo. En relación con esto, D. Xabier Buenetxea plantea que está pendiente y sin resolver aún la posibilidad de creación de un corredor ecológico y pregunta si el foro se quiere posicionar al respecto, esto es, si está de acuerdo o no. Pedro Ortueta, Patxi Díaz y Xabier Buenetxea, son partidarios de que se invite a Jon Gallastegi cuando se trate este tema en el Foro, pudiendo ser en el próximo cuando se trate la revegetación del Gobela, ya que fue uno de los que propusieron la idea del corredor verde. Hay diversos comentarios ; algunos son partidarios de transmitir al representante de URA, que acuda a la reunión del próximo 29 de marzo, la inquietud existente entre algunos miembros del foro, sobre si se va a contemplar o no un corredor ecológico. También, se plantea, que si no se puede abordar tal cuestión en el Foro del 29 de marzo, se pueda hacer en algún otro posterior. En este sentido Pedro Learreta propone la idea de realizar una sesión, para elaborar una propuesta en este sentido, tal vez el 3 de mayo.

La concejala, Sra. Keltse Eiguren explica que Ura únicamente va a realizar la recuperación ambiental de la zona en donde ha actuado, donde ha realizado la obra; es ahí únicamente donde va a revegetar.

Entiende que puede oír nuestras propuesta e ideas pero su actuación se centra en las obras anticipadas que ha acometido, dentro del proyecto general y es en esa zona en donde ha actuado, la que va a revegetar y adecuar ambientalmente.

Reitera Patxi Díaz que sería interesante que viniera Jon Gallastegi para que plantee sus propuestas, oírle, como coordinador que es, de Agenda 21 escolar en Fadura.

En Getxo, a las 21:15 horas se da por finalizada la reunión.